

# Marmari Leitzako aldizkaria

10. zenbakia / 2004ko abendua




## Leitzak lana ematen al digu?

- Txinatik Leitzara
- Zertan da euskararen osasuna?
- Leitzako liburutegia
- Leitza lehen eta orain, herriko baserriak

# zenbaki honetan:



**Leitzak**  
lana ematen al digu?



**Zertan da**  
euskararen  
osasa

**THINATIA**  
Arantxa Azpi

**LEITZAKO LIBURUTEGIA**  
denontzako menua



**Ezetz**  
asmatu

**Partsonaia**  
ezkutua

**Leitza** lehen eta orain  
**HERRIKO BASERRIAK**

**EZAGUTZEN AL DUZU LEITZAR**

**THISTEH**

**eta zuk, zer diozu?**

19. orr. Ezetz asmatu eta pertsonaia ezkutua.

20-25. orr. Leitza lehen eta orain. Herriko baserriak.

26. orr. Testa.

27. or. Txistek eta Eroskopa.

3. or. Editoriala.

4-5. orr. Txinatik Leitza.

6-9. orr. Zertan da euskararen osasuna?

10-13. or. Leitzako liburutegia.

14-18. orr. Lana eta enplegua Leitza eta eskualdean.

# Leitzak lana ematen al digu?

**G**aldera, noski, modu askotan uler daiteke. Edo beste era batean esanda: esaldi berberarekin gauza asko galde daitezke. Guk, zehazki, bi galdera egin nahi izan ditugu:

- **Leitzan lan egin nahi duenak, ba al du horretarako aukerarik?**
- **Leitza bizirik mantentzeak lana ematen al digu?**

Horiek dira MARMARIren 10. zenbakian irakurleari egin nahi dizkiogun galderak. Zer pentsatua ematen duten kontuak dira, eta horixe da, hain zuzen, gure helburua: irakurlea gauza horien inguruan pentsatzen jartzzea.

Lehendabiziko galderari erantzuten laguntzeko errepor-taje bat egin dugu, eta Leitzan gai hori lantzen ari den pertsonarekin, Oskia Baraibarrekin, hitz egin dugu. Gure herri honetan dagoen edo ez dagoen lan eta enpleguari buruz aritu gara, eta zenbait datu eman dizkigu. Badakigu jende askorentzat gai garrantzitsua dela, izan ere, Leitzan bizi nahi duenak lana ere inguruan edukitzea izaten du gustuko. Ez beti, baina bai askotan behintzat. Eta gaur egun, asko dira herritik egunero atera behar izaten dutenak lan egitera.

Beste alde batetik, bigarren galdera hau dugu: herriak ematen al digu lana? Beste era batean ere esan genezake: egiten al duzu zuk zerorrek zer edo zer herria bizirik mantentzeko? Konprometitzen al zara? Herria bizirik mantentze-

ko gauza asko egin litezke, eta ez dira denak ikusgarriak. MARMARI saiatzen gara zenbaki bakoitzean herriko hainbat taldek, elkartek, erakundek edo pertsonak egiten duten lanaren berri ematen, Leitzak hain beharrezkoa duen bizitasun horren erakusgarri.

Eta horiez gain, bestelako gaiak ere badituzu 10. zenbaki honetan: ohiko atalak, adibidez, eta baita euskararen inguruko artikulua ere. Euskararen osasuna zertan den azaltzen saiatu gara,

labur samar bada ere. Hizkuntza bizirik dagoela diogu artikuluan, baina osasun egoera kaskarrean. Arazo eta ezintasun ugari dauzka euskarak. Hizkuntza komunikatzeko, gozatzeko eta bizitzeko daukagu, beti negar batean aritu gabe, baina haren osasunaz ere kezkatu beharra daukagu.

Eta kezagarria da, adibidez, hainbeste urtez mediku euskaldunak behin eta berriz eskatzen aritu ondoren, berriz ere Leitzan mediku erdalduna izatea. Langile horren aurka deus ez daukagu, jakina, baina Iruñeko administrazioak berriz ere leitzar askoren hizkuntza eskubideak urratu ditu. Eta kezkatzea da, baita ere, euskarari Iruñetik ematen zaizkion dirulaguntzak murriztu nahi izatea. Eragina Leitzan bertan nabaritu dugu: MARMARI aldizkaria, Karrape Irratia, IKAREN euskaltegia, Udalaren Euskara Zerbitzua... denei murriztu nahi dizkiete dirulaguntzak Nafarroako Gobernuan dauden bi alderdiek. Zoriturrez, gure hizkuntzaren osasunaz arduratzeko arrazoi gehiago eman dizkigute.

Editorial hau bukatzeko, nolanahi ere, baikor izateko deia egin nahi dugu. Zenbaki honetako artikulua batean esaten den bezala, errealista izan behar da, baina jarrera baikor batek lagunduta. Jarrera ezkor eta pesimista hutsak normalean ez du batere laguntzen, eta hobe dugu gure erronka guztiei baikortasunez ekitea. Animo, beraz.





# TXINATIK LEITZARA

## Arantxa Azpirozekin hizketan

**U**rruti samarreko lurraldea dugu Txina, ez dago zalantzarik. Milaka kilometrok banatzen gaituzte. Badaude, ordea, lotzen edo batzen gaituzten gauzak, eta horietako bat azaldu nahi dugu hemen. Badugu, zehazki, Txinara bidaiatzeko arrazoi polit bat aurkitu duen leitzarra, eta berarekin hitz egin dugu.

Arantxa Azpiroz dugu, hain zuzen, oraingoan Leitza eta Txina lotu dituen, handik ume bat ekartzea erabaki baitu. Erabaki garrantzitsua, inondik ere, ber-

rentzat eta baita handik etorriko den leitzar berriarentzat. Gisako erabakiak ez dira bat-batean eta ongi pentsatu gabe hartzen, noski, eta horren guztiaren inguruan galdetu nahi izan diogu Arantxari.

Garai batean akaso harrigarriago gertatzen zitzaigun kanpoan jaiotako umeak hona heldu zirela ikustea, baina gaur egun oso normal bihurtu da eta gure herrian bertan baditugu zenbait adibide. Gauza ederra eta oso interesgarria iruditzen zaigu, eta horregatik erabaki

dugu gure aldizkarian ere gai honi tokitxo bat egitea.

Honatz Arantxarekin izandako elkarrizketatxo:

■ **Txinatik ume bat ekarriko duzu. Zorionak, hasteko. Erabaki garrantzitsua da, zalantzarik gabe. Nola iritsi zara horrelako erabaki bat hartzera? Zerk bultzatu zaitu?**

Eskerrik asko. Ama izateko nahiak eraman nau erabaki hau hartzera.

■ **Erabakia hartzeko garaian zalantzak ere izanen zenituen, ziur asko. Zer eragin dizkizu zalantzak edo kezkak?**

Erabaki hau oso pauso garrantzitsua izan da nere bizitzan, eta, noski, kezkak eragin dizkit: ingurukoek gai honi ematen dioten trataera, umea ongi egokituko al den...

■ **Gaur egun nahikoa normal bihurtu da kanpoko umeak ekartzea. Uste duzu dagoeneko mundu guztiak ongi ulertzen duela?**

Gai honen inguruan mota desberdinetako iritziak egonen dira, dudarik gabe, batzuk kontserbadoreak eta besteak irekiagoak. Hala eta guztiz, adopzioa urte tik urtera gero eta gehiago hedatzen ari denez, jendeak gero eta normaltasun handiagoz ikusiko duela iruditzen zait, egun egon daitezkeen prejuizioak alboratuz.

■ **Mundu zabaletik Txinara jo duzu. Ez zara bakarra, bistan denez. Zer-gatik Txina?**

Bakarra izateagatik nituen aukeren artean, Txina arrazoi ezberdinengatik aukeratu nuen: umeak osasun onarekin iristen direlako, adin txikikoak direlako, adopzio prozesuak segurtasuna eta gardentasuna eskeintzen duelako. Bestalde, Txinan adoptatu duten familia batzuen esperientzia baikorren informazio zuzena ere jaso dut.

■ **Nolakoa da umea ekartzeko egin behar den bidea? Zer urrats egin behar izan dituzu?**

Bidea luzea da. Nire kasuan konkretuki, hasi nintzenetik haurra ekarriko dudana arte hogeita bat hilabete pasako dira. Eman ditudan urratsak laburki azaltzen saiatuko naiz. Hasteko, Nafarroako Ongizate Institutua delakora jo nuen informazio eske, eta hilabetero adopzio-ari buruz antolatzen duten bilera batera joan nintzen. Herrialdea aukeratu eta bertako profesionalen (psikologoa eta gizarte-laguntzailea) elkarrizketa eta



Haizea, Txinatik etorri berria den leitzarra.

balorazioen ondoren “certificado de idoneidad” delakoa jaso nuen. Behin ziurtagiria jaso ondoren, Txinara bidaltzeko dokumentazioa prestatzen hasi nintzen. Espedientea Txinara bidali eta CCAAan (Centro de Adopciones) sartu ondoren sei hilabetez itxaron behar izan dut haurra asignatu arte, hau da, nire alaba zein izanen den jakin arte. Asignazioa onartu eta 40 egun barru bidaia egingen dut. Txinan 15 egun igaro ondoren umea eta biok Leitzarara etorriko gara.

■ **Laguntzarik izan al duzu inondik?**

Prozesua libreki, zure kabuz edo ECAI (Entidad Colaboradora de Adopciones Internacionales) baten bidez egin dezakezu. Nik nire kabuz egitea erabaki nuenez, asko lagundu dit adoptatu duten familia batzuekin izan dudana harreman zuzenak. Horretaz gain, AFACek (Asociación de familias adoptantes en China) interneten bidez zabaltzen duen informa-

zioa oso zehatza eta lagungarria suertatu zait

■ **Kanpotik ume bat ekarri eta hemen hezitzea gauza berria da zuretzat, noski. Egokitzea nolatsukoa izan ohi den ba al dakizu? Norbait informatu zaitu, aholkurik eman al dizute?**

Umea hona etortzen denean, beste ohitura batzuk izanen dituela kontuan hartu behar da. Ohitura horiek eragina izanen dute bizitza berrira egokitzeko orduan eta horretarako bere denbora beharko du. Pazientzia eta denbora eskaintzea izanen litzateke gurasoen eginbeharra.

■ **Umea hona etortzen denean, gutako bat izanen da, beste guztiak bezalaxe. Hala ere, bere jatorria ezagutzeari, gogoratzeari edo eusteari garrantzirik emanen al diozu? Izenari dagokionez, esaterako, zer egingen duzu?**

Gutako bat izanen dela ez dago dudarik, baina umeak bere jatorria zein den jakiteko eskubidea du, eta alde horretatik ahal dudana informazio guztia ematea da nire asmoa. Izenari dagokionez, lehenengo izena euskal izena jartzeko asmoa dut, baina bigarren izen bezala berea mantenduko diot.

Honaino Arantxak azaldu diguna. Erabaki garrantzitsua eta prozedura luzea izan da, baina ziur asko pozaldi eta gozatu ugari ekarriko dizkie aurrerantzean Leitzako kaleetan barna ikusiko ditugun ama-alabari.



«Adopzioa urtetik urtera gero eta gehiago hedatzen ari denez, jendeak gero eta normaltasun handiagoz ikusiko duela iruditzen zait, egun egon daitezkeen prejuizioak alboratuz»



# Zertan da euskararen osasuna?

**I**noiz galdetu al diozu zeure buruari, serio antzean, euskararen osasuna zertan den? Egia esan behar bada, Leitzan bizi denaren begietan ziur asko euskara hizkuntza bizi-bizia da, indar handikoa, eta eguneroko bizitzako hizkuntza nagusia, edo gutxienez oso presente dagoen hizkuntza. Baina hori Leitzan senti daitekeena da, ez, ordea, Nafarroa osoan edo Euskal Herri osoan gertatzen dena. Gurean bertan ere euskarak baditu hutsuneak, ajeak eta ezintasunak, atera kontuak, hortaz, herri erdaldunagoetan —Euskal Herriko gehienak— zer izanen den!

Artikulu honetan Euskal Herrian euskarak duen osasunari —euskararen egoerari, alegia— gainbegiratu egin nahi izan diogu, eta egoera horren inguruko hausnarketa batzuk ere plazaratu ditugu. Beti bezala, inor konbentzitzea baino gehiago, gogoetarako eta pentsatzeko bideak eta aitzakiak eman nahi ditugu.

## EUSKARAREN EGOERAREN GAURKO ARGAZKIA

Zenbait datu eta ideia zehatzago eman baino lehen, saia gaitezen euskararen egoeraren berri labur-laburrean ematen. Gogora dezagun orokorrean hitz eginen dugula, alegia, Euskal Herria osoa kon-

tuan hartuta. Honelaxe azal genezake:

Euskara hizkuntza bizia da, baina osasun kaskarra dauka, eta ez dauka etorkizuna ziurtatua.

Hau da, hizkuntza bizirik dugu, baina epe ertain edo luzean bizirik eta osuntsu jarraituko duen ez dago batere garbi, eta ezin da gaur horrelakorik ziur esan. Datu eta zantzu positiboak baditugu, baina datu eta zantzu negatiboak eta kezkarriak ere oso ugariak dira. Euskara berreskuratzea eta biziberritzea ez da batere lan erraza izanen.

Gure ustez, eta perspektiba pixka batekin ikusiz gero, euskararen galera prozesu azkarra neurri batean gelditu egin da. Gelgitu egin da, bai, baina batzuetan ematen du ez aurrera ez atzera gabiltzala —edo alor batzuetan aurrera eta besteetan atzera—, eta garbi dago oraindik ere ez gaudela inflexio-puntu edo haustura-une batean. Alegia, ezin da esan euskararen atzerakada behin-betiko irauli dugunik eta euskara berreskurapen bidean ziur jarri dugunik.

Argilun dezente, beraz, gure argazkian. Horren aurrean, gure ustez, optimismoa jarrera egokia da. Egokia da energia ematen duelako, eta lan egiteko adorea ematen duelako; beti ere, inozo-



kerian erori gabe: gauzak errealitatean nola dauden jakin beharra dugu. Ezkortasuna, berriz, jarrera desegokia da: lanerako galga bat delako, eta energiak xahutzen dizkigulako. Errealismoa behar da, errealitatearen ezagutzak eginen dituelako eraginkor gure ekimenak, jarrera optimista batek lagunduta.

## EUSKARAREN EGOERA: ZENBAIT EZAUGARRI ETA FAKTORE

Euskararen argazkia osatzeko, garrantzitsuak diren zenbait faktore eta kontzepturi begiratu emanen diegu, alde bakar bati begiratzea baino zuzenagoa baita ahalik eta ikuspegi osatuena izatea. Ez ditugu hemen kontuan har litezkeen guztiak bilduko, jakina, baina bai garrantzitsuak eta orokorrak diren batzuk:



Euskararen aldeko ekitaldiak egitea oraindik ere beharrezkoa da.

1.- **Euskara hizkuntza minoritarioa da:** euskal herritarren % 25 inguru gara, lautik bat, euskaldunak, hau da, euskaraz hitz egiten dakigunak.

2.- **Hizkuntza minorizatua:** eguneroko bizitzako alderdi garrantzitsu askotan (administrazioa, komunikabideak, lan-mundua, teknologia berriak...) euskararen erabilera hutsaren hurrengoa da; euskara esparru horietan baztertuta dago, oso marjinala da.

3.- **Hizkuntza komunitate desegituratua:** euskaldunak gizarte erdaldun batean murgilduta gaude, nagusiki erdaraz bizi den gizarte batean kokatuta gaude. Erdararen itsasoan, askotan, loturarik gabeko irla txikiak besterik ez gara euskaldunak.

4.- **Diglosia:** gure herrian hizkuntza bat baino gehiago ditugu. Hizkuntza horien arteko harremana, ordea, ez da orekatua eta simetrikoa. Batzuk hizkuntza nagusiak dira (gaztelania eta frantsesa), eta bestea mendekoa (euskara).

5.- **Ofizialtasunik eza:** euskara ez da hizkuntza ofiziala bere lurralde osoan. Ofiziala den lurraldeetan ere, ez da hizkuntza nagusien maila berekoa.

6.- **Erabilera:** egin diren neurketen arabera, Euskal Herriko kaleetan entzuten denaren % 14 euskara da. Gainerakoa erdara (gaztelania edo frantsesa, nagusiki).

7.- **Hizkuntza eskubideen urraketak:**

euskal herritarren hizkuntza eskubideak egunero eta lurralde guztietan urratzen dira. Hori erakusten du Hizkuntza Eskubideen Behatokiak egindako urteko txostenak.

Horiek dira koadroa osatzen laguntzen diguten zenbait datu eta jakinarri. Egia da, zorionez, egoera horri aurre egiteko ekimen eta lan asko egin dela eta egiten ari dela Euskal Herrian, eta lorpen handi-txiki asko ere baditugula euskararen aldeko zakuan sartzeko. Baina lan, lorpen, aurrerakada eta ekimen horiek guztiek, zoritxarrez, ez digute argazkiaren kolorea orokorrean gehiegi aldatzen. Goian aipatu ditugun zazpi faktore horiek, Euskal Herria orokorrean hartuta, bere horretan jarraitzen

dute azkeneko urteotan. Ez dago egoera bete-betean iraultzeko moduko aldaketarik.

Zer esan nahi duen horrek guztiak? Bada, euskara berreskuratzeko egiten ari garen ahaleginak oraindik ez duela indar aski egoerari behin-betiko buelta emateko, eta euskararen etorkizuna ziurtatzeko.


Ondorioa? Argia, gure ustez. Egiten ari garen guztia eta are gehiago ere egin beharko dugu, euskara etorkizunean bizi eta osasuntsu ikusi nahi badugu.

### NOLA IRITSI GARA HONAINO?

Galdera polita da, eta erantzuna konplexua. Ohi den bezala, gertaera historikoen azalpen osoa eta erreala egiteko faktore asko kontuan hartu behar da —ekonomikoak, kulturalak, militarrek, sozialak, politikoak, etnologikoak...—, eta faktore horien irakurketa oso ezberdina egin litezke. Garbi dago, hala ere, euskara bizi zen lurraldera beste herri batzuk iritsi zirela, eta herri horiek beren administrazioa, antolaketa, kultura, teknologia, eta HIZKUNTZAK ere ekarri zituztela. Berrikuntza horiei egindako erresistentzia gorabehera, kontua da kanpotik etorritako elementu horiek, baita hizkuntzak ere, Euskal Herrian ezartzea lortu zutela, bertakoaren espazioa murriztuz, ia-ia galtzeraino.

Dauzkagun datuen arabera, garbi dago euskararen lurraldean aldaketa nabarmenak gertatu direla azkeneko 2.000 urteotan. Hizkuntzak etorri eta joan egin dira, eta, egia da, euskarak bertan eutsi dio. Euskararen izatea, ordea, dezente aldatu da bere lurraldean, eta aldaketa handiak gertatu dira: lurraldezkoak (lurralde zati handiak galdu dira), funtzionalak (gizarte-bizitzako funtzioak galdu dira) eta demografikoak (hiztunen portzentajea murriztu da).

Lehen esan dugun bezala, prozesu historiko horren inguruan irakurketa ezberdinak egin daitezke: batzuek, adibidez, euskararen historian atzerakada eta galera prozesua nabarmentzen dute.



Euskara hizkuntza bizia dugu, zalantzarik gabe, baina osasunez makal dabilena. Zaindu eta bizkortu beharra daukagu.

Horrela egiten denean, aitortu behar da historiaren eta prozesuaren protagonistak, euskaldunak baino, erdaldunak direla. Beste batzuek, berriz, euskararen eta bere hizkuntza komunitatearen iraupena azpimarratzen dute: protagonismoa euskaldunoi ematen diete. Galera baten historia baino, iraupen baten historia da.

Gure ustez, egia esateko, bi irakurketak batu egin behar dira. Egia da komunitate baten iraupena kontatzea atsegina dela, eta ukitu baikorragoa daukala. Baina, beste aldetik, ezin dugu ahaztu euskararen espazioa nola murriztu den eta horren atzean hainbat arrazoi daudela, kolonizazio eta jazarpen prozesuak tartean.

Euskararen bilakaeraren arrazoiak azaltzean ere, noski, joera ezberdinak daude. Batzuentzat euskaldunon utzikeria izan da arrazoi nagusia: euskaldunok huts egin diogu geure hizkuntzari, kan-

potik etorritakoaren mesedetan, hizkuntza arrotzak hobetsi ditugulako. Beste batzuentzat, aldiz, kanpoko kolonizazioa eta zapalkuntzak azalduko luke euskararen galera osoa.

Berriz ere esanen dugu arrazoi eta azalpenaren karga guztia bi faktoreetako batean bakarrik jartzea ez dela zuzena, baina, gure iritziz, biak maila berean jartzea ere ez da egokia. Ziur asko batek eragin du bestea, nekez pentsa baitaiteke euskaldunok hizkuntzari uko egiteko berezko joera handiagoa dugunik besteek baino —euskararen iraupen harrigarriak, deus erakustekotan, kontrakoa erakutsiko luke—. Norberaren hizkuntza utzi eta ondokoa hartzea ezin da prozesu natural eta espontaneotzat hartu, eragindako fenomenotzat baizik. Horrek ez du ezkutatu behar kasu batzuetan hizkuntza leialtasunari huts egin zaiola, batez ere interesak tartean egon direnean (proiektzio soziala lor-





tzea, prestigioa, interes ekonomikoak...). Baina, normalean, norberaren hizkuntzari huts egitea kanpoko presio handi baten ondorioa dela uste dugu.

#### ETORKIZUNA?

Artikuluaren hasieran esan dugu: euskarak ez dauka etorkizuna ziurtatua. Hizkuntzen arteko lehia erreala da, eta munduko hizkuntza-aniztasuna asko aldatuko da hurrengo urteotan. Adituek esaten dutenez, milaka hizkuntza galduko da XXI. mendean, gaur egun munduan bizirik dauden gehienak hain zuzen.

Hizkuntzen arteko lehia hori nola gauzatuko den zehaztea, egia esan, oso zaila da, gizartearen egiturak eta funtzionamenduak oso aldaketa handiak eta azkarrak izan ditzakeelako. Auskalo 50 urte barru nolako mundua eta nolako gizartea izanen dugun. Auskalo gaurko azterketa-moduek eta eskemek 50 urte barru balioko ote diguten.

Hala ere, etorkizuna irudikatzen zailtasunak zailtasun, gaur egun ezagutzen dugunarekin euskararen etorkizuna ziurtatzeko zer behar den argitu beharko genuke, eta hura lortzeko lan egin. Lortu beharreko hori zer den aipatzen ausartuko gara, den-dena aipatuko ez dugula jakin arren:

Hasteko, gure ustez, hizkuntza normalizatzeko erabaki kolektibo bat behar da: herritarren aldetik —eta erakundeen aldetik— hizkuntza berreskuratzeko egiazko gogorik egon ezean, nekez normalizatu edo berreskuratuko dugu euskara.

Bestetik, hizkuntzaren transmisioa ziurtatu eta belaunaldi berri euskaldunak sortu behar dira: hizkuntza bizia eta indartsua familia bidez transmititzen dela ziurtatu behar da, eta belaunaldi berriak eta herritarrak euskalduntzen direla ere bai. Euskarari bizirik eusteko, bistan denez, euskaldunak behar ditugu. Eta asko, gainera.

**Euskara  
berreskuratzeko  
egiten ari garen  
ahaleginak oraindik  
ez du indar aski  
egoerari behin-betiko  
buelta emateko, eta  
euskararen etorkizuna  
ziurtatzeko.  
Ondorioa? Egiten ari  
garen guztia eta are  
gehiago ere egin  
beharko dugu,  
euskara etorkizunean  
bizi eta osasuntsu  
ikusi nahi badugu**

Euskararen ofizialtasuna eta marko legal egokia: legeak ez dira nahikoa, inolaz ere, baina ezinbestekoak dira. Hizkuntza eskubideak norbanakoarenak eta kolektiboak dira, eta horiek legeetan jasotzen dira eta legeen bitartez betearazi behar dira. Ofizialtasuna kontzeptuak horiek bildu behar ditu, eta botere publikoei eta gizarteko eragileei hainbat eginkizun eta betebeharrak ekarri behar dizkie.

Erabilera: gizarte-bizitzan, eguneroko bizitzan, badira hizkuntzarentzat zenbait lehentasuneko esparru (euskararen lurraldea osatzea, hiriburuak, administrazioa, komunikabideak, lan-mundua eta zerbitzuak...). Horietan euskarak espazioa bilatu eta lortu behar du, eta horretarako hizkuntza politika eraginkorrek behar dira. Bestalde, eta esan beharrik ez dago, euskaldunok euskara erabili egin behar dugu. Askotan era guztietako trabak eta eragozpenak agertzen zaizkigu, baina beste askotan gure esku dago erabiltzea, eta guk geronek erabakitzen dugu.

Hori guztia ziurtatzeko euskalgintzak —eta, oro har, euskaltzaleek— bi planotan egiten dute lana:

Batetik, euskararen biziraupenerako ezinbestekoak diren baldintza soziopolitikoak eskuratzeko lana: euskararen ofizialtasuna, hizkuntza eskubideak errespetatzea, hizkuntza politika eraginkorrek abian jartzea...

Bestetik, hizkuntza biziari eutsi behar zaio eta eguneroko bizitzan atek eta espazioak ireki behar zaizkio; eguneroko lana deitzen dugun hori da: herrietako irrati eta aldizkari euskaldunak, enpresak euskalduntzeko planak, euskaltegiak, normalizazio proiektuak, euskararen erabilera sustatzeko ekimenak, Bai Euskarari...

Badugu, bai, nahikoa lan. Ez dugu horregatik ikaratu behar. Sarreran esan bezala, datu eta errealitate zail eta gordine, jarrera baikor batekin erantzun behar zale. Jarrera errealista, bai, baina baikorra ere bai.

# LEITZAKO LIBURUTEGIA denontzako menua



**L**eitza, irakurtzen edo leitzen batere ez dakienik ia ez dago. Gaur egun denok dakigu irakurtzen. Batzuk afizio eta ohitura handixea goa dutela besteek baino? Jakina, gauza guztietan bezala, denetik baitago gure mundu honetan. Zorionez, Leitzako liburutegian ere denetik dugu, eta bertan

denontzako moduko irakurgaiak daukagu.

Abenturak gustuko dituzu? Bada, liburuetan eta komikietan nahi adina abentura aurki dezakezu.

Mendizalea zara? Mendiaren inguruko liburu eta aldizkari ugari dituzu eskura.

Sexuaz ikasi edo irakurri nahi? Horren inguruan ere aurkituko duzu zer irakurria: gidak, nobela erotikoak, hiztegiak...

Filosofia atsegin? Filosofiaren historia, filosofoen testuak eta filosofiaren historia hantxe dituzu zain, zure eskutan noiz eroriko.

Leitzarrek zer idatzi duten jakin nahi duzu? Apal batean bilduta dauzkazu bertakoek idatzitako lan guztiak, txukun-txukun.

Zientziarezalea zara? Hara, zientziaren inguruko argitalpenak ere badituzu, sakontasun eta zailtasun maila ezberdinetakoak gainera.

Eta abar, eta abar. Alegia, zure gustuko gaien eta zaletasunen inguruko irakurgaiak eskura dituzu, baita zure estiloko literatura, dibulgazio-testu, denbora-pasa edo idazlanak ere. Horixe eskaintzen digu, bi hitzetan esanda, Leitzako liburutegiak.

Baina bi hitzetan esandakoa gehixeago zehazten saiatuko gara, liburutegiko arduraduna den Jose Luis Huarterekin hitz eginda. Hona gure galderak, eta hona haren erantzunak:

### ■ Noiz sortu zen Leitzako liburutegia?

1969an Amazabal Patronatoak ireki zuen eta haren ardura izan zen 1982an Nafar Gobernuako Liburutegi Sarean sartu zen arte. Hitzarmen bat sinatu zuten Udalarekin eta lokala eta mantemimendua udalaren esku gelditu ziren; beste ardurak, berriz, Gobernuaren esku.

### ■ Gaurko kokalekua ez da hasierako bera, ezta? Non egoten zen hasiera hartan?

Lesakeneko herrian urte askotan. Gero bertako nagusiak arrandegi bat ireki zuen eta Liburutegia atzealdera pasa zen; Liburutegi Sareak ez zuen onartu egindako aldaketa eta Udalak haur-eskolako zati bat egokitu zuen. Hori 1993-94 aldera. Ondoren, 1996an, obra bat egin zen eta mobiliario guziaz berriro zen orain daukan itxura hartuz.

Duela lau bat urte, berriz,

Udalak proposatu zion Gobernuari Maxurrenean egin behar zuen Kultur Etxera eramateko liburutegia; bizpahiru bisita egin ondoren, eta baldintza batzuk jarrita, eskaera onartu zuten, baita diru kopuru bat gorde ere berritik hornitzeko(?). Denok dakigu nola bukatu zen asmo hori eta orduz gero hemen-txe gaude.

### ■ Oraingo kokapen hau, egokia al da?

Lokala ederra da, argitsua, alaia eta kanpoaldean nahikoa toki dauka. Baina aparte samar dago kokatua: propio joan behar duzu liburutegira, ez zaizu inoiz bidean gelditzen, eta herri erdigunetik kanpo dago. Horrelako zerbitzuak toki zentrikoetan jartzea da gaurko joera.

### ■ Eta arduraduna, zu izan al zara beti?

Ez, ni 1984an sartu nintzen. Liburutegia Sarean sartu zenean oposaketa batzuk egin zituzten eta nik atera nuen lanpostua. Lehen Pontxito izan zen urte askoan eta aurretik Maribel Barriola eta beste norbait ere bai.

## LIBURUTEGIKO KATALOGOAREN INFORMATIZAZIOREN INGURUKO ARGIBIDEAK

Azken zazpi hilabeteotan liburutegiko katalogoa eraberritze prozesuan dago, "informatizatzen". Honek esan nahi du bertan dauden dokumentu guztiak banan-banan hartu eta bere ezaugarriak programa informatiko berezi batean sartu behar direla, eta gero barra-kode bat jarri bakoitzari; bidenabar, zaharkituak edo desfasatuak daudenak kendu edo berriro egiten dira. Bukatzen denean katalogo osoa ordenagailuz oso modu errazean kontsultatu ahal izango da hemen bertan edo Nafarroako edozein liburutegitan eta laster Internet bidez, zure etxean. Mailegu zerbitzua ere automatizatu egingen da eta horretarako liburutegiko TXARTEL BERRIA atera behar da argazki bat ekarrita, berdin dio lehengo txartela atera berria baldin bada ere, baliorik gabe geldituko baita. Gainera txartel hori Nafarroako liburutegi guzietan erabili ahal izanen da mailegurako eta guzi.



### ■ **Ordutegia, egutegia...?**

Astelehenetik ostiralera arratsaldeko 3etatik 9etara, eta udan goizeko 8,30etatik 2,30etara. Oporrak, ikastaroak edo bajaren bat badugu, itxi egiten da, ez dute ordezkorik jartzen eta.

### ■ **Liburutegia norena da? Eta, esaterako, nork erosten eta ordaintzen ditu bertara iristen diren liburu, aldizkari, bideo eta bestelako produktuak?**

Liburutegiaren ardura nagusia Nafar Gobernuarena da, langilea eta bertako hornikuntza barne. Lokala eta mantentzea udalaren ardura dira. Material gehiena Iruñetik bidaltzen dute eta bertako beharrak asetzeko Udalak 2.400 eta Gobernuak 1.500 ematen dituzte.

### ■ **Liburutegira iristen den materiala nork aukeratzen du? Nolakoa irizpideak erabiltzen dituzue?**

Iruñetik bidaltzen dutena Nafarroako liburutegi guztietara zabaltzen da eta %30 haur eta gazteei dago zuzendua (hala ere azken aldi honetan aldaketak izan dira bai liburu kopuruan eta bai aukeraketetan ere; txarrerako, jakina). Ere euskaldunera bidaltzen dituzte euskarazkoak, baina ez dago kopuru jakin bat.

Gure aurrekontua, berriz, hutsuneak betetzeko erabiltzen dugu, gehienbat euskarazko liburuak erosteko, beti irakurleen eskaeraren arabera, noski.

### ■ **Leitza herri oso euskalduna da. Hori ere nabaritzen al da liburutegian? Euskarazko liburu eta aldizkariaren portzentajea zenbatsukoa den ba al dakizue? Eta herritarrek zer hizkuntzatan irakurtzen dute?**

Bai, nabarmena da, gehienbat jendearekin ditugun harremanak ia erabat



euskaraz direlako. Irakurtzean, berriz, denetarik dago. Haur eta gaztetxoaren artean euskaraz egiten da gehienbat, bai denbora-pasarako bai lanak eta kontsultak egiteko ere. Kontuan izan behar da Leitza D ereduko ikasketak daudela soilik. Beste adinekoetan gauzak asko aldatzen dira. 40-50 urtetik gorakoetan erdara da nagusi erraz, eta gazteagoetan berriz euskaraz gehixeago irakurtzen da nahiz erdara nagusitu. Baina hizkuntza erabileraren portzentajerik ez dugu.



**«Nik uste badaudela edozeinentzako moduko irakurgaiak liburutegian. Irakurtzeko gogo pixko batekin zure gustuko zerbait aurkituko duzu seguru»**

Liburuen %20-25 izanen da euskaraz eta dozena bat aldizkari ere bai.

### ■ **Zer aurkituko du liburutegira joaten den herritarrek bertan?**

Informazioa, sailkatua eta euskarri askotakoa: egunkariak, aldizkariak, klase guztietako liburuak (haur eta larrientzako, denbora-pasa eta gaika sailkatutakoak, hiztegiak, entziklopediak...), CDrom mordoxka, bideoak, DVDak, pelikulak eta erreportajeak, musika-CDak, eta baita Internet dohainik erabiltzeko aukera ere, Nafarroako liburutegi guztietako katalogoak, etab.

### ■ **Izanen da, beraz, denontzako moduko irakurgairik, ezta?**

Bai, klase guztietakoak daude. Nik uste edozeinentzako modukoak badaudela. Irakurtzeko gogo pixko batekin zure gustuko zerbait aurkituko duzu seguru. Eta nahi duzuna ez baduzu aurkitzen eskatu eta beste liburutegi batetik edo bertarako erosiz askotan lortuko duzu.





■ **Funtzionamenduari dagokionez, zein dira arauak? Alegia, bazkide izan behar al da? Eta zer egin behar da liburuak edo bestelakoak etxera eramateko?**

Liburutegira etortzeko ez dago inolako baldintzarik eta dauzkagun dokumentu guztiak eskura daude bertan ikusi eta erabiltzeko. Hori bai, isiltasuna eta errespetua nahitaezkoak dira. Mailegu zerbitzua eta ordenagailuak erabiltzeko liburutegiko bazkide txartela atera behar da; argazki bat ekarri eta berehala egiten dugu, eta Nafarroako Sareko edozein liburutegitan erabil daiteke. Gehienez 3 liburu 21 egunerako, bi aldizkari 7 egunerako eta bi DVD, CD edo bideo lau egunerako eraman daitezke batera.

■ **Pozik al zaude herritarrek liburutegiari ematen dioten erabilerarekin?**

Bai. Urtean zehar jende asko etortzen da eta ia 4.000 mailegu egiten ditugu urtero. Ez dago gaizki. Hala ere oraindik urruti gaude Europako beste herrialdeetako erabilpen mailatik, liburutegira

joateko ohiturarik ez dago, buelta bat ematera zer dagoen ikusi edo periodikoa leitzera eta bidenabar liburu edo diskoen bat eraman, sukaldeko errezeta liburu bat edo ehizari buruzko zerbaite...

■ **Irakurzalea al da Leitzako jendea?**

Badago jende irakurzalea Leitzan, baita liburutegira etortzen ez direnen



«Urtean zehar jende asko etortzen da eta ia 4.000 mailegu egiten ditugu urtero. Ez dago gaizki. Hala ere, oraindik urruti gaude Europako beste herrialdeetako erabilpen mailatik»



artean ere, baina inkestak eta portzentajeek-eta esaten dute irakurzaletasun maila baxua dela Europarekin alderatuta.

■ **Nork erabiltzen du gehien liburutegia?**

Haur eta gaztetxoak askotan egoten dira hemen lanak egiten eta abar, eta gainera erraz nabarmentzen dira...; gero ikasleak, eta maileguan, berriz, helduak. Badago hutsune bat 14 eta 20-25 urte bitarteko gazteengan, eta jende larria, jubilatua eta abar, gutxi ikusten da.

■ **Eta zer irakurtzen da gehienbat?**


Liburutegian bertan bai gazteek eta bai helduek kontsulta liburuak edo gai jakin baten gainekoak, lanaren bat egiteko eta abar. Haurrek berriz ipuinak. Maileguan gehiena nobela eta gazteen-tzako ipuinak.

■ **Bestelako zerbitzuak ere badituzue: internet...? Zein dira horiek erabiltzeko baldintzak?**

Baldintza bakarra txartela egitea da. Internet ordu batez erabil daiteke, beti ere erabilpenaren eta eskaeraren arabera, eta dohain da. Tresnak ere erabil daitezke, ordenagailuak, eskanner eta inprimagailuak, lehen aipatutako baldintzetan.

■ **Liburuzainak zertan lagun diezaioke liburutegira joaten den herritarri?**

Nahi duen informazioa bilatzen edo bertako tresnak erabiltzen, ahal duen neurrian, noski. Baina horretarako gauden eta lasai etor daiteke galdetzeraz gai jakin bati buruzkoak non egon daitezkeen, edo nola bilatu bere gustuko idazlearen liburuak, edo nola ireki posta-kontu bat interneten..., edozein gauza. Zailagoa da asmatzea liburu polit bat eskatzen dizutenean.



# LANA ETA ENPLEGUA LEITZAN ETA ESKUALDEAN

**L**anak edo enpleguak, zalantzarik gabe, herritar gehienei kezka sortzen die. Lana duenari, adibidez, nekea eragiten diolako, ardurak ekartzen dizkiolako, denbora kentzen diolako... Lanik ez duenari, berriz, diru-sarrerak eskasten zaizkiolako, langabeziak ezinezona edo frustrazioa sortzen diolako...

Kezka sortzen du, beraz, baina ez da beti alderdi negatiboa gailentzen. Badago lanean gustura eta pozik aritzen den jendea, lana inolaz ere aldatuko ez lukena, berak nahi duen lana egiten duena. Eta badago, bestalde, lanik egin gabe oso zoriotsu bizi den jendea ere.

Egoera batean edo bestean egon, kontua da lana eta enplegua guztion edo gehienon intereseko gaia dela, eta horre-

gatik egin dugu MARMARIn erreportaje hau. Lana eta enplegua ditugu aztergai, eta horren inguruko informazio bila CEDERNA-GARALUR erakundearen LAN ORIENTAZIO ETA KUDEAKETARAKO ZERBITZURA jo dugu. Bertan aritzen den Oskia Baraibarrek, hainbat datu emateaz gainera, elkarrizketaxoa egiteko tarte ere eman digu.

## LANA ETA JARDUERA EKONOMIKOAK GURE INGURUAN

Gure gizartea eta gure bizimodua aldatzen ari dela ez dago ukatzerik. Gero eta azkarrago, gainera. Jantzkerak, ohiturak, hizkuntza, pentsamoldeak... guztiak ere

aldatzen ari dira. Baita lan kontuak ere. Esate baterako, SARRIOk garai batean Leitzan zuen pisua aldatu egin da, eta belaunaldi gazteak ez dira dagoeneko herriko lantegi horretan lanean hasten. Nekazaritza eta baserritarren sektoreak ere, bistan da, pisua galdu du. Horrek guztiak gure herriaren izaeran ere eragina izanen du, eta dagoeneko ere izan du. Eman diezaiogun begiradaxo bat, azkar bada ere, ekonomiaren oinarritzko hiru sektoreei. Eskualdeko datuak dira (Leitzaldea, Larraunaldea eta Ultzamaldea) baina gurean ere aplikagarriak direla uste dugu.

### Lehen sektorea

Nekazaritzak, artzaintzak, baserritarren

jardunak, behera egin dute nabarmen aspaldi honetan. Ez dago ziurtatua lan edo jardun horietan jarraituko duen jende gaztea egonen denik, eta nekazaritza eta artzaintza bera arriskuan daude. Sektorean aldaketak gertatu dira, noski, eta horietako batzuk aipatu dizkigute CEDERNAn: esne-behiak kendu eta haragi-behiak jarri dira, ardi-gazta egiten duten gaztandegiak sortu dira... Bestalde, aipatu behar da inguru honetan mendi komunaletan aberastasun handia dagoela, eta baserriaren dibertsifikazioak alternatiba berriak ere ekarri dituela: gaztandegiak, sagardoa, ezitia, artisau-postreak...)

#### Bigarren sektorea

Industriaz ari gara, nagusiki. Eskualdeko enpresa handienak Sarrio, Maier, Agrozumos, Zumos Eva... dira. Horien ondoan, enpresa ertainak daude, eta, batez ere, enpresa txikiak. Azken urteotan egurra, eraikuntza, metala, plastikoa eta elikagaiak dira industria lana sortzen ari direnak. Nabarmentzekoa da nekazaritzako elikagaien industria: Ultzamako SAT, Beteluko GAR-GOIK... Sektore honetan ere jarduera ekonomikoa dibertsifikatzeko apustua egin da: autoenplegua, autonomoak, enpresa berriak...

#### Hirugarren sektorea

Sektore publikoan administrazioko langileak ditugu: udalak, osasun-zerbitzuak, gizarte zerbitzuak, hezkuntza... Emakumezkoak dira gehienbat sektore honetan ari diren langileak. Sektorean gorakada bat gertatu da azken urteotan, baina azken aldiko joera pribatizatzaileak eta laguntzen murrizketak gorakada hori geldituko dutela dirudi.

Sektore pribatuan, berriz, aipagarriena errepidezko salgaien garraioa da. Ostalaritzaren sektorea ere goraka doa, gehienbat turismoari lotuta (landetxeak, landa-hotelak...) Zerbitzuaren sektorea gorantz doa, beraz, eta autoenplegu autonomoa ere sortu da.

#### LANGABEZIA: LANIK GABE DAUDENAK


Badirudi azken urteotan jende gutxi dagoela lanik gabe. Beste kontu bat da, jakina, lanean ari direnak nolako baldintzatan ari diren. Langabetuak, nolana ere, egon badaude, eta horien ezaugarriak begiratuko ditugu jarraian. Zenbakiak Nafarroako Enplegu Zerbitzuak (NEZ) emandakoak dira; alegia, zerbitzu horretan izena eman dutenak hartuko ditugu kontuan.

Datuok aztertzekeo garaian kontuan izan behar da badagoela lanik gabe egon arren NEZen izena ematen ez duen jendea.


Gaur egun Leitzan bizi den herritarrek Donezteben eman behar du izena; alde batetik deserosoa da, eta, bestetik, gehienetan lan-eskaintzak Baztan, Bortzirriak eta hango inguruan sortzen dira, eta askori ez zaio batere ongi egokitzen. Horregatik, besteak beste, bada lanik gabe egon arren izena ematen ez duen jendea.

Leitzan, zehazki, 60 lagun dira NEZen izena eman dutenak. Hurrengo bi grafiko hauetan ikusiko dugu langabetu horiek nolako ikasketa maila duten, eta sexuaren arabera ere nola banatzen diren:



#### IKASKETA MAILAREN ARABERA. Portzentajea




#### IKASKETA MAILAREN ARABERA



Langabetu gehienak, beraz, ikasi gabekoak dira edo gehienez OHO dutenak.

**LANGABEZIA SEXUAREN ARABERA. Portzentajea****LANGABEZIA SEXUAREN ARABERA**

Grafikoan argi gelditzen da langabezi tasa handiena emakumeen artean gertatzen dela.



## LAN ORIENTAZIO ZERBITZUA

### Lana bilatzeko eta hobetzeko laguntza

Nafarroako mendialdearen garapena bultzatzeko agentzia bat sortu zen 1992an: CEDERNA-GARALUR. Agentzia horrek hainbat zerbitzu ematen ditu, eta horietako bat da LAN ORIENTAZIO ZERBITZUA. Zein da horren helburua? Bada, mendialdean dauden giza baliabideak (lan egin dezaketen pertsonak, azken batean) eta enpresen beharrak egokitzea. Alegia, enpresen beharrak eta lan egin nahi duten pertsonen interesak edo beharrak ezkontzen saiatzen dira.

Zerbitzuak, hortaz, enpleguaren inguruan egiten du lana, eta lau ataletan banatzen du bere jarduna edo zerbitzua:

**Erabiltzaileentzako zerbitzuak:**

Zerbitzu hau lanik gabe daudenei eta lanean ari direnei ematen zaie. Elkarriketa baten bidez pertsona bakoitzaren egoera ezagutzen da. Hortik abiatuta, lan merkatuan sartzeko norberak izan dezakeen biderik egokiena zein den zehazten da:

- 1) Nafarroako mendialdeko enpresa guztien eskura dagoen lan poltsan sartzea.
- 2) Langabetuek lan merkatuan sartzeko jarraitu behar duten bidea.
- 3) Lan merkatura egokitutako prestakuntzaren —arautua nahiz jarraitua— inguruko informazioa.

4) Enplegua era aktibo batez bilatzeko teknikak ezagutzeko prestakuntza eta aholkuak; informazio hori, beti ere, norberari eskainiko zaio.

**Udal, Kontzeju eta Herri Erakundeentzako zerbitzuak:**

Zerbitzu hau doan ematen da, eta helburua da mendialdeko herrietan lan merkatua dinamizatzea. Horretarako, honako jarduerak egiten dira:

- 1) Langileak hautatzeko prozesuak diseinatu, aholkuak eman eta bertan parte hartu.
- 2) Praktikak kudeatzea.
- 3) Lan-poltsak sortzea eta diseinatzea: udaletan eta baita lanbide-mailan ere.
- 4.- Kokatu berriak diren enpresentzako prestakuntza-plan jarraituak diseinatzea.



**Enpresentzako zerbitzuak:**

Zenbait enpresak, beren tamaina dela eta, zailtasunak dituzte kanpoko aholkularitza-zerbitzuak lortzeko. Enpresa txiki eta ertain horiei zuzentzen zaie, bereziki, zerbitzu hau.

**Doan ematen zaien zerbitzua:**

- 1) Lanpostuari hobekien egokitzen zaion perfila erabakitzeko aholkularitza
- 2) Langileen prestakuntza jarraituari buruzko informazioa
- 3) Kokatu berriak diren enpresentzako aholkularitza, giza-baliabideak kudeatzeko
- 4) Eskualdeko lanbide-perfilei buruzko informazioa eskuratu ahal izatea

**Doan ematen ez diren zerbitzuak:**

- 1) Langileak hautatzea
- 2) Prestakuntzaren inguruko diagnostikoak
- 3) Prestakuntzaren diagnostikoak egitea, eta horien berri ematea Nafarroako Gobernuaren eta FORCEMaren deialdiarako.

**Lan merkatuarekin lotutako tailerrak:**

- 1) Eskola tailerrak. DBHko 4. mailako ikasleekin lan egiten da. Helburua da eskola orientatzailearen lanarekin osagarria den informazioa ematea. Ikasleei eskualdeko errealitate sozioekonomikoaren, lan merkatuaren eta irteera profesionalen berri ematen zaie; horrela, lanbidea hautatzeko garaian eskualdeko enpresek dituzten beharrak kontuan har ditzakete.
- 2) Ondonavarra
- 3) Babestutako gizarte enplegua.

Horixe duzue, bada, zerbitzu honek egiten duen lanaren laburpena. Oskia Baraibar dugu bertako langilea edo teknikaria, eta Leitzaldea, Baztan eta Bidasoa osoan aritzen da lanean. 619 829289 da haren telefonoa, eta obaraibar@cederna.es helbide elektronikoa. Leitzako udaletxera ere etortzen da, ostegunetan, goizeko 10etatik eguerdiko 2etara. Berarekin hitz egiteko hitzordua eskatzea komeni da.

## Lan Orientazio zerbitzuko teknikaria

# Oskia Baraibar

**■ Noiz sortu zen Lan Orientazio Zerbitzua? Zein da bere egitura, eta zertarako sortu zen?**

Lan Orientazio eta Kudeaketarako Zerbitzurako dirulaguntza Nafarroako Enplegu Zerbitzuak ematen du baina Cederna-Garalur elkarteak kudeatzen du. 4 teknikarik osatzen dugu zerbitzua Nafarroako Mendialdean banaturik. Ni Baztan-Bidasoa-Leitzaldean aritzen naiz, beste lankide bat Sakana, Lekunberri, Larraun eta Ultzaman eta beste biak Pirinioetan eta Zangotzan.

Berez, zerbitzuaren helburua eskualdeko enpresek behar duten langileriaren perfila eta eskualdean dagoen langileria egokitzea da. Hau da, guk eskualdeko enpresek behar dutena ezagutzen dugu, eta saiatzeko gara guregana datorren jendeari lan merkatuari buruzko informazioa ematen eta bideratzen.

**■ Zer zerbitzu eskaintzen dituzte?**

Guregana datorren jendeari lana bilatzeko orientazioa eskaintzen diogu: bakoitzaren interes eta nahien inguruko diagnostiko txiki bat egin, interes horien arabera informazioa eman (lan merkatuaren inguruan, formakuntza aukera desberdinen inguruan...), kurrikulumak ongi egiten lagundu, aukeraketa prozesuak ongi prestatzeko laguntza eman...

Pertsona horien kurrikulumak bildu eta datu-base bat osatzen dugu. Bestalde, enpresei bitartekaritza zerbitzua eskaintzen zaie. Hau da, enpresak guri deitu diezaguke eta haiek nahi duten lan perfilaren arabera guk jendea bila dezakegu. Modu horretan, eskaera eta eskaintzaren arteko egokitze zuzena lortzen da. Aipatu behar dut dena den, zerbitzura langile bila jotzen duten enpresak ez direla asko, alde batetik lanik gehienak ahoz aho betetzen dire-



lako eta bestetik bertako enpresa askok Aldi Baterako Lanerako Enpresak (gaztelaraz ETT izenarekin ezagutzen diren enpresak) erabiltzen dituztelako langileak hautatzeko orduan.

Hainbat udaletan hautapen prozesuen diseinu, plangintza eta egikaritzean parte hartzen dugu baita ere.

Beste lan esparru bat formakuntza da: saiatzeko gara formakuntza eskualdera ekartzen, bai Europatik, eta baita Nafarroako Enplegu Zerbitzutik ere, sor daitezkeen dirulaguntza desberdinen bidez. Leitzan konkretuki aurten emakumei zuzendutako oinarrizko elektrizitate ikastaro bat antolatu genuen PILNAR izeneko Europako proiektu bati esker.

Ikastetxeekin elkarlanean, DBHko 4. mailako ikasleei eskualdeko lan merkatuaren inguruko tailerrak ematen dizkiegu.

**■ Zuen zerbitzua Nafarroako Enplegu zerbitzuarekin nahasten al du jendeak?**

Askok uste du zerbitzu hau Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren antzekoa dela, bertara jo, izena eman eta guk lana bilatzen dugula, baina hori ez da horrela. Guk lana bilatzen laguntzen dugu, baina norbera da lana bilatzen duena.

Baliteke zerbitzutik lanen bat eskaintzea edo baliteke ezetz, beraz, ematen zaien informazioarekin haiek dira mugitu behar direnak. Hau da, guk tresnak ematen ditugu (kurrikuluma egin, lan merkatuaren inguruko informazioa eman...) eta gero norberaren lana da tresna horiek erabiltzea. Lana bilatzea ez da lan erreza izaten, batez ere ezezkoak askotan entzun behar direlako eta ez delako atsegina atez ate ibiltzea, baina guk zerbitzu hau ematen daramagun denboran zerbait argi ikusi badugu hau da: mugitzen denak azkenean ia beti lana lortzen du.

### ■ Zer motatako jendea hurbiltzen da zuen zerbitzura?

Zerbitzua Leitzako adin guztietako jendeari zuzendua egon arren, ondoko lau perfilak bereiziko nituzke zerbitzuaren erabiltzaile nagusi gisa:

#### **Gaszte tituludunak:**

Eskualdean ez dago gaszte tituludunentzako lan eskaintza haundirik. Aipatu behar da, dena den, perfil teknikoak dituzten tituludunek errazago aurkitzen dutela lana. Ez da hemen bakarrik gertatzen den fenomeno, lan merkaturaren orokorrean gertatzen da, lan merkatuak xurgatu dezakeen baino tituludun gehiago baitago. Unibertsitateko ikasketak dituztenek lan merkaturatze epe luzeagoa dute (batezbestekoa bi urtekoa izaten dela esaten da) Lanbide Heziketa dutenek baino.

Nire aholkua beraz ikasketak bukatu eta denboraldi batez ikasitakoan lana bilatzen zentratzea da, eta sor daitezkeen aukera guztiak baliatzea. Horretarako lana bilatzea Iruñera eta Gipuzkoara ere zabaltzea komeni da.

#### **Emakumeak**

Emakumearen lan merkaturatzea gizonezkoarena baino zailagoa da orokorrean eta Leitzan ere fenomeno hori gertatzen da. Zerbitzura hurbiltzen diren Leitzako emakume askok beren gain hartu behar dute etxean egin beharreko lana eta haur eta zaharren zaintza. Horrek lana bilatzea asko zaildu eta mugatzen du. Horren erakusgarri azken boladan Leitzako Poligo-

no berrian ezarri behar diren enpresen inguruan sortu den ikusmina da. Egia ez diren zurrumurru asko zabaldu da, “ez dakit zer enpresa etorri behar dela”, “emakume pila bat enplegatu behar dituela”... eta hori dela eta azken bi hilabeteotan normalean baino askoz ere emakume gehiago hurbildu da zerbitzura. Interes hori sortu da enpresa Leitzan bertan kokatu behar dela pentsatzen delako eta fabriketan lana turnotan, astez eta soldata duin baten truke egiten dela hautesmaten delako. Modu horretan etxean eta etxetik kanpo egiten den lana bateragarriak izan litezke.

### **Etorkinak edo lan merkaturatzeko zailtasun bereziak dituztenak**

Etorkinen kasuan lana bilatzeko orduan beste edozeinek eduki ditzakeen zailtasunei beste bat eranstean zaie: inguruko lan merkatua ez ezagutzea. Kasu horietan garrantzitsua izaten da oinarri-oinarrizko informazioa ematea, bai ohiturei buruz bai lan merkatuari buruz ere. Zailtasun handiak dituzte lana aurkitzeko, lehen ere aipatu dudana bezela, lan gehienak ahoz aho lortzen baitira eta hori normalean ezagunen artean egiten baita.

### **Lanean ari den jendea, baina lan hobia lortu nahi duena.**



### ■ Eskualdeko lan merkatua nola ikusten duzu?

Lehen aipatu bezela enpresa askok Aldi Baterako Lanerako Enpresak erabiltzen dituzte langileak kontratatzeko, horrek sor lezakeen lanaren ezegonkortasunarekin. Dena dela momentu honetan Lekunberriko Poligonoan nahikoa mugimendu dago eta aukera bat izan daiteke lana bilatzen dabilen jendearentzat. Leitzan sortu den poligonoan dauden enpresetan lana sortu sortzen ari da, baina oso espezializatua eta tradizioz gizonezkoek betetzen dituzten lanpostuetan. Zerbitzua enpresa guztiei eskaini zitzaien eta bakar batek erantzun zuen; momentu honetan enpresa horrekin nabil harremanetan. Zailtasunak dituzte soldatzen dakien jendea bilatzeko. Etorkizunean industrialdean koka daitezkeen bi enpresei buruz oraindik ez dakigu gauza handirik: partzela saldu zaie eta orain enpresen erabakia da noiz hasiko diren eraikinak eraikitzen. Hortik aurrera, ikusiko dugu zer lan aukera sortzen diren.

Beste lan aukera bat ostalaritza da. Sektore horren egoera egunetik egunera okertzen ari da, gero eta zailagoa baita langileak lortzea. Lan eskaintzak badaude baina ez ostalaritzan lan egin nahi duen jendea. Jendeak ez ditu lan horiek nahi. Arrazoia? Batez ere astebukaera guztietan lana egin behar dela.

Gehien eskatzen diren perfilak formakuntza edo esperientzia teknikoarekin zerikusia dutenak dira, hau da, soldatzailak, makina-herramienta, tornua eta frezatzeko-makina... eta, noski, ostalaritza-koak.

### ■ Bukatzeko, inork zuregana jo nahi baldin badu, zein da zerbitzuaren ordutegia?

Ostegunetan egoten naiz Leitzako Udaletxean, lehengo solairuan, printzipioz 10:00etatik 14:00etara. Dena den, nirekin egon nahi izanez gero, 619829289 telefonora deitzea komeni da hitzordua hartzeko, gertatu baitaiteke norabait joan behar izatea edo dena delakoa...

# Ezetz asmatu

Urteak ez direla alferrik pasatzen! Ez, noski, baina horrek denontzat balio du, ez da inor lege zorrotz horretatik libre gelditzen. Tira, hemen dituzue zenbat argazki zahar, zuek lanean jartzeko. Poli-ki-poliki aztertu, lehendabiziko begi kolpean batere argi ez dagoena gerora garbixeago ikusten baita. Pazientzia izan, eta pixkanaka argazki hauetako protagonista asko ezagutuko dituzue.

## Pertsonaia ezkutua

Ez duzula ezagutzen? Bai, bai, ezagutzen duzu. Ez da gordetzen den horietakoa, ez da Leitzan oharkabean pasatuko den horietakoa. Saia zaitetz, gutxienez, eta laster ikusiko duzu ez dizugula batere zail jarri.



# Leitza lehen eta orain

## HERRIKO BASERRIAK

**m**armariren 9. zenbakian honen antzeko artikulua egin genuen. Orduan herriko etxeak erakutsi genituen, 1974 eta 2004 urteetan egindako argazkietan hain zuzen. Oraingoan, bi urte horietan baserriei egindako argazkiak ekarri ditugu.

30 urte gutxi edo asko izan liteke, nola begiratzen den. Baina eraikinen itxura aldatu dela ikusteko, behintzat, nahikoa da. Baserrien izenak mantendu egin dira; baserrietan bizi diren familiak ere askotan berberak dira; baserrien itxura, ordea, gehienetan aldatu da. Batzuetan gehiago eta besteetan gutxiago, noski, baina urteen joana gehienetan nabaritzen da.

Argazkiokin, beraz, herriaren itxura nola aldatzen den erakutsi nahi dugu. Aldaketak normalean pixkana-pixkana gertatzen dira, eta ez gara hainbeste ohartzen. Baina bat-batean orain dela 30 urteko herriari begiratu ematen badiogu, orduan aisa ohartzen gara itxuraldatze horretaz.

Aldaketa onerako edo txarrerako izan den? Orain politagoa edo zakarragoa den? Hori ez dugu guk esanen, norberaren gustuen eta iritzien menpe baitago. Gure lana, besterik gabe, argazkiak hona ekartzea izan da. Gogora dezagun, nolahi ere, hemen benetako lana argazki hauen guztien egileak egin duela, Jose Migel Elosegik hain zuzen, harenak baitira argazki guztiak.



Arro





**Keorenborda**



**Iruñaga**



**Joantzar**





Portolonborda



Aliñea



Eztebenea





Goikoerota



Joantxenea



Bordatxuri





Ibiur



Olaso



Aierrea







**Donmielenborda**



**Gorritz**



**Lesakolorreta**



# EZAGUTZEN AL DUZU LEITZA?

**H**ementxe dituzu Leitzan lan egiten duten hainbat erakunde, talde edo elkarteren izenak. Izen bakoitzaren ondoan lau definizio jarri ditugu. Horietako bat zuzena da, beste hiruak okerrak. Ariketa, beraz, erraza da: aukera ezazu zure ustez erantzun zuzena den hori, eta ondoren bukaerako taularekin konpara ezazu.

## 1.- UEMA:

- A) Udako Euskaldunen Makrofesta
- B) Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea
- C) Udalak Euskalduntzeko Mania
- D) Udalerri Elebakarren Manifestua

## 2.- LIÑU-PUTZU:

- A) Leitzan bizi diren txinatarren elkarte
- B) Leitzako xake taldea
- C) Gimnasia egiten duen helduen taldea
- D) Ehoziri lanetan aritzen direnen elkarte

## 3.- MENDIBIL

- A) Leitzako arraunlarien elkarte
- B) Leitzako mendi taldea
- C) Leitzako ekitazio taldea
- D) Leitzako lasterkarien elkarte

## 4.- JEIKI

- A) Abesbatza
- B) Astrologia elkarte
- C) Parrokiako katekistak
- D) Gazte asanblada

## 5.- CEDERNA-GARALUR

- A) Mendialdeko garapen agentzia
- B) Ilargira bidaiatzeko agentzia
- C) Eskualdeko baserriarren bilgunea
- D) Herriko karlisten elkarte

## 6.- INFOLOCAL

- A) Leitzan zabaldu berri duten telefonodenda
- B) Eskualdeko aldizkari digitala
- C) Udalen zerbitzu bat
- D) Globalizazioaren aurkako Leitzako taldea

## 7.- TXARAGORRI

- A) Sanferminetan zezenketetara joaten direnen elkarte

- B) Leitzako ura saltzen duen enpresa
- C) Karrape irriatiak umeentzako egiten duen saioa
- D) Osasunazaleen peña

## 8.- DENOK BAT

- A) Eskolako guraso elkarte
- B) Institutuko guraso elkarte
- C) Haur-eskolako guraso elkarte
- D) Unibertsitateko ikasleen guraso elkarte

## 9.- AMAZABAL

- A) Eskolako guraso elkarte
- B) Institutuko guraso elkarte
- C) Haur-eskolako guraso elkarte
- D) Unibertsitateko ikasleen guraso elkarte

## 10.- ERLETA

- A) Ezti-biltzaileen elkarte
- B) Leitzako Eskola
- C) Leitzako ehiztarien elkarte
- D) Leitzako Osasun Etxea

## 11.- EHBE

- A) Euskal Herriak Bere Etxea taldea
- B) Euskal Herriak Bere Eskola taldea
- C) Euskal Herriak Bere Edaria taldea
- D) Euskal Herriak Bere Estiloa taldea

## 12.- IRATXE

- A) Dantzari beteranoen taldea
- B) Dibortziatuaren elkarte
- C) Autozaleen taldea
- D) Kontsumitzaileen elkarte



## ERANTZUNAK:

(1) b. - Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea; 2) d. - Ehoziri lanetan aritzen direnen elkarte; 3) b. - Leitzako mendi taldea; 4) a. - Abesbatza; 5) a. - Mendialdeko gara-pen agentzia; 6) c. - Udalen zerbitzu bat; 7) d. - Osasunazaleen peña; 8) a. - Eskolako guraso elkarte; 9) b. - Institutuko guraso elkarte; 10) b. - Leitzako Eskola; 11) b. - Euskal Herriak Bere Eskola taldea; 12) d. - Kontsumitzaileen elkarte

Dezente asmatu dituzula? Bikain. Leitzan zer dagoen eta zer ez dagoen badakizu. Uste baino emaitza kaskarragoa lortu duzu? Bada, ez gurekin haserretu. Zure ezjakintasuna izanen da horren arrazoa, eta ez galderen zailtasuna. Hemen bizi zara, ezta? Egin ezazu, orduan, herria hobeki ezagutzeko ahalegintxo. Hemen aipatzen diren elkarte eta talde guztietako bazkidea izan gabe ere, gutxienez gauza bakoitza zer den ikas ezazu. Tira, test hau horretarako egin dugu, hain zuzen: orain arte ez zenekiena, aurrerantzean jakin dezazun.

## UMOREA

Gizon bat joan omen da medikutara, eta berebiziko dardarizoa eskuan, eta...

— Doktore jauna, begira, azken bolada honetan eskuan izugarrizko dardarizoa daukat, eta ez dakit zergatik ote den. Eta medikuak esan dio:

— Asko edaten al duzu?

— Asko nola edango dut? Erdia erori egiten zait eta!

Ailegatu omen da bat taberna batera, eta harro samarra izaki tipoa, taberna bete-betea; igeltsu bat hartu eta lurrean marra bat egin du. Eta denei esan die:

— Marratik ezkerretara zaudetenak nazkante hutsak zarete, eta marratik eskuinera zaudetenak, ergelak. Batek eskua altxatu du, eta

— Hi, ni ez nauk nazkantea.

— Ba jarri hadi hor ergela, jarri hadi beste aldean.

Zure lehendabiziko aldia da. Etzan zara, eta muskuluak tenkatu dituzu.

Albo batean jartzeko esan diozu, baina berak ez du alde egin nahi. Izututa ote zauden esan dizu, eta zuk ezetz diozu, burua emeki mugituz.

Eskarmentu handikoa da, eta oso trebea da behatzak behar den tokian sartzen.

Ari eta ari, ari zaizu, eta zu dardarka. Zure gorputza adi-adi dago, baina bera hain da xamurra zurekin!

Begietara egiten dizu so ezтики, eta ez larritzeko esan dizu, ez duela lehendabiziko aldia, ez bigarrena...

Bere samurtasunak lasaitu egin zaitu, eta gehiago zabaltzeko esan dizunean, ez duzu oztoporik jarri.

Azkar bukatzeko esan diozu, baina behar duen denbora hartuko duela esan dizu, ez dizula minik eman nahi.

Berak zenbat eta barrurago sartu, orduan eta min handiagoa sentitzen duzu, eta odoletan hasiko zarela dirudi.

Kezkatuta begiratu dizu, ea mingarria den galdetu.

Negar-malkoak doazkizu masailetan behera, baina ezetz esan diozu buruarekin, segitzeko, segitzeko!

Barrura eta kanpora ari da maisutasun handiz, baina erdi zorabiatuta zaude deus sentitzeko.

Urduritasunak joan dira, zerbait lehertu da zure barrenean, eta kanpora atera du. Zu hasperenka zaude, eta pozarren bukatu duelako.

Begietara egin dizu so, goxo-goxo begiratu eta beste batzuetan baino zailagoa izan dela esan dizu, baina kontent dagoela.

Irribarre batekin eskertu diozu egin dizun lana.

Azken batean, kentzen dizuten lehen hagina da


## EROSKOPOA



**Aries:** Elurreta joateko plana itten dozonen, zeatik ez dozo zuzenen anbulantzi bat eskatzen?



**Taurus:** Taurus za, beño horrek ez do esan nahi adarrak jarri dizkitzuenik. Jeloskorregie za.



**Gemini:** Eozin empresa kimi-kok beño kei gehio botatzen dozo. Noiz utzi behar diozo erretzei?




**Cancer:** Etxen ez dizue kon-tatutakoa sinistu. Hurrengoako, aitzakia hobea asmatu.



**Leo:** Zeatik ez diozo ondoko ikaskidei kasu itten. Ez al za kon-turatu aspaldi dabillega zurekin ligatu nahien?



**Virgo:** Launei kasu in ta parrandaz parranda ibili beharren, noizen behin mendire joanen baziñe...



**Libra:** Oso txuletagille ona omen za, beño kontue da gero, azterketan zure letra izautzeko gai izan behar dozola. Bestela, akabo!



**Scorpius:** Hola seitzen badozo, hainbeste diru zorrekin, launik gabe geldittuko za.



**Sagitaris:** Gripea eskola edo lanea ez joateko aitzaki ona da, ezta?



**Capricornius:** Zenbat urte pasa die txandala azken aldiz jantzi ziñunetik?



**Aquarius:** Hola seitzen badozo, enpresako zuzendari izendatuko zattue. Atera noizbait kafetxoa artesa!



**Piscis:** Andereñoak ezin zatto ikusi re in? Oparittu iozo urdaiazpiko ear bat egurrigan.

# zer diozu?

eta zuk,

## Arantxa Iparragirre



- Lortu al duzu pezetak ahaztu eta eurotan pentsatzea? **Ez.**
- Zein duzu urtarotik gogokoena? **Udaberria.**
- Izan behar al lukete apaizek ezkontzeko eskubiderik? **Hori beraiei galdetu behar.**
- Leitzari zer kenduko zenioke? **Deus ez.**
- Leitzari zer ekarriko zenioke? **Gazteentzako lanpostu gehiago.**
- Parranda-egunik bereziena zuretzat? **Buf! Gehiegi daude gauz onerako.**
- Bisitatzeko toki bat bakarra aukeratu beharko bazenu... **Kolonbia.**
- Pelikula txar bat **Salam.**
- Pelikula on bat **Mi vida sin mi.**
- Diska on bat **Kuraiaren lehenengo.**
- Liburu on bat **El ojo sentimental.**
- Bolantea eskuetan duzunean, zu ere transformatu egiten al zara? **Ez.**
- Nondik hasten zara egunkaria irakurtzen? **Hasieratik.**
- Zenbat kilometro daude Leitzatik Aresora? Eta Goizuetara? Eta Donostiara? Eta Iruñera? **3'5, 19, 40, 50.**
- Mundua desastre hutsa da. Optimista izan behar al dugu, hala ere? **Bai.**

## Juan Maritorea

- Lortu al duzu pezetak ahaztu eta eurotan pentsatzea? **Falta direnean bakarrik.**
- Zein duzu urtarotik gogokoena? **Udaberria.**
- Izan behar al lukete apaizek ezkontzeko eskubiderik? **Balukete, ni ere apaiz sartuko nintzen.**
- Leitzari zer kenduko zenioke? **Maxurreneko inkilinoez gain, dauzkagun kotxeen erdiak.**
- Leitzari zer ekarriko zenioke? **Umentzat parkeak.**
- Parranda-egunik bereziena zuretzat? **Ez dago egun berezirik parranda egiteko.**
- Bisitatzeko toki bat bakarra aukeratu beharko bazenu... **Louvre-ko museoa.**
- Pelikula txar bat **Zine de barrio-ko edozein.**
- Diska txar bat **King Afrika-ren edozein.**
- Liburu txar bat **Biblia.**
- Pelikula on bat **Torrente.**
- Diska on bat **Pink Floyd-en The Wall.**
- Liburu on bat **Argiñanoren despentsa.**
- Bolantea eskuetan duzunean, zu ere transformatu egiten al zara? **Bai, noski.**
- Nondik hasten zara egunkaria irakurtzen? **Atzekaldetik.**
- Zenbat kilometro daude Leitzatik Aresora? Eta Goizuetara? Eta Donostiara? Eta Iruñera? **Gero eta gehiago.**
- Egia al da gizakiak ilargia zanpatu duela? **Bai, geroztik aurpegi txarra dauka.**
- Mundua desastre hutsa da. Optimista izan behar al dugu, hala ere? **Bai, horrek ez baitu ozonoa zulatzen.**

